



Programazioa: dantza, zinea, antzerkia, Umore Zikloa eta erakusketa aretoa

Martxoa

Paper birziklatuan inprimatua



Ekitaldi programazioa martxoa 2010



Casa de Cultura de Burlada
Burlatako Kultur Etxea

Erakusketa Aretoa

Martxoaren 9tik 25era

Erakusketa

“La Maison des Artistes,
un viaje de intercambio
de culturas”



SARREREN SALMENTA

- **Aldez aurretik:**
 - 012aren bitartez.
 - Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 19:00etara.
 - Larunbatetan, 9:30etik 13:30era.
 - Internet bidez: www.burlada.es
- **Leihatilan:** Emanaldia baino bi ordu lehenago.

- **Doaneko haurtzaindegi zerbitzua:** kultur etxeak dohaneko haurtzaindegi zerbitzua izanen du 5eko eta 12ko jardueretara joan nahi duten gurasoen haurrentzat. **Adina:** Bi urte eta erditik aurrera. **Ordua:** 19:30etik aurrera.

Martxoa

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				



5a, OSTIRALA

Burlata AnDANZAs

Abriendo Camino

Taldea: Ursula Lopez


Ordua: 20:00 h.

Sarrera: 6 euro.

Laguntzailea: Gobierno de Navarra “Programa ESCENA”.

Oso modu ortodoxoz Flamenko desberdinetan barrena ibiltzen dela, Úrsula Lópezek emozioak eragin nahi ditu, bere dantzariekin eta zuzeneko musikarekin batera, flamenkoaren munduari modernitate ukitu bat emanez.

Haurtzaindegi zerbitzua.



7a, IGANDEA

Haurrentzako Zinea (euskaraz)

Rudy, Txerri azkarra

Ordua: 18:00 h.

Sarrera: 2 euro.

Orain arte, Nickel, bederatzi urteko mutikoa, eta bere aita ondo konpondu dira. Baina egun batez, Nickelek Rudi izeneko txerri txoa ekarri du motxilan ikastetxeko txango batetik bueltan. Etxean, berak ere ezusteko bat du zain: aitak neskalaguna du! Are okerrago: aitaren neskalaguna etxera etorri da bizitzera, eta bere alaba ekarri du: Feli, hamabi urtekoa. Nickelek tratua egin du aitarekin: emakumezkoak etxean geratzen badira, orduan Rudi ere gera daiteke. Rudik anabasa ekarriko du etxera, eta liskarrak eragingo ditu familiakoen artean. Giroa gaiztotuta, Rudi txerrien lurraldera joango da ihesi Felirekin batera. Atzetik gaizto inozo bik jarraituko diete.



Orduak:
Astelehenetik ostiralera,
17:00etatik 21:00etara.
Larunbatetan 19:00etatik
21:00etara.
Igandetan 12:00etatik
14:00etara.



12a, OSTIRALA



Umore zikloa
“Hermanos
de Baile”

Taldea: Yllana

Ordua: 20:00 h.

Sarrera: 10 euro.

Hiru bikote, hiru estilo, artea, erritmoa, zehaztasuna... horiek guztiek hiriko parajeetara eramango gaituzte eta 7 dantzari profesionalen maisutasunean blaituko gara. Etorbide bat, plaza bat, parke bateko berdegunea... edozein lekutan sortu ahal da pasioz eta erritmoz beteriko desafio bat. Flamenkoa, Break dance, Tap Claqué... guztiak guztien kontra oso oso iraulia den ikuskizun errebelde honetan. 2 metro koadro baino ez dira behar aurkari bati desafio egiteko eta arima eta odola bakarrik erabiliko dituzte armatzat.

Hautzaindegi zerbitzua.



www.yllana.com



www.pai.com.es

14a, IGANDEA



Alasala Egitasmoa

Haurrentzako antzerkia, 0 eta 3 urte bitartetik gorakoentzat

“Patim, Patam, Patom”

Taldea: La Pai (Aragoi)

Ordua: bi emanaldi. 17:00etan eta 18:30ean.

GARRANTZITSUA: ESERLEKU KOPURUA MUGATUA DA. 30 haur, haur bakoitza heldu bakar batek lagunduta.

Duración: 45 minutos.

Sarrera: 3 euro.

“Patim, Patam, Patom” ikuskizun honetan haurrak ikusleak izango dira ikus-entzunezko eta adierazpenezko elementuen bitartez; eta, bestaldetik, aktore ere bihurtu ahalko dira “aintzira txiki” bizidun batean uraz, argiaz eta abarrez jolastuz.

21a, IGANDEA

Gazteentzako zinea

Luna Nueva (Saga Crepúsculo)

Ordua: 18:00 h.

Sarrera: 2 euro.

Edwardek Bellarengandik aldentzea erabaki zuen eta beste hiri batera joatea, gerta daitezkeen istripuetatik eta banpiroen erasoetatik babesteko asmoz. Une horretan konturatuko da Jacoben ondoan ongi sentitzen dela eta bere barruko mina ahultzen dela.





26a, OSTIRALA

Zinea eta Immigrazioa

Hoy empieza todo

Ordua: 20:00 h.

Sarrera sarrera.

Daniel Lefebrek haur eskola bat zuzentzen du bazter auzo batean Frantziako iparraldeko Hernaing hiri meatzarian. Irakaslea arau zurrinak hausten ahaleginduko da eta haur probe eta gosatiek ere aukera bat izan dezaten borrokatuko du. Danielek ez du etsiko eta oztopo guztiak gainditu eta komunitate osoaren laguntza lortuko du. Adore, kemen eta balore handietako istorioa: komunitate baten borroka haur horientzat edozein unetan, edozein lekutan, gaur bertan dena has dadin.

Antolatzailea: Burlatako Immigrazio Bulegoa.
Laguntzaileak: Lan eta Immigrazio Ministerioa eta Nafarroako Gobernua.



27a, LARUNBATA

Antzerkia (komedia)

“Euskadi tropical: los años del rock radical vasco”

Taldea: Iluna producciones

Ordua: 20:00 h.

Sarrera: 10 euro.

Barricada, Kortatu, Hertzainak, La Polla Records, Tahures Zurdos, Potato... taldeen abestiez osaturiko musikala. Belaunaldi oso baten musika zuzenean, geure hurbileko historiari begiratzen dion komedia.



28a, IGANDEA

Haurrentzako antzerkia

“La princesa de fresa”

Taldea: Gus Marionetas (Nafarroa)

Ordua: 18:00 h.

Sarrera: 3 euro.

Lotarako ordua da eta Marta liburu bat irakurtzen ari da: “Marrubizko Printzesa”. Pixkatxo batean irakurrita, loak hartu zuen eta une horretan Gaston, ipuinaren pertsonaia bat, ipuinetik bertatik aterako da eta Martaren logelan abentura dibertigarriak bizi.